



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

2007ko balantzea

13.270 bisitari izan ditu Enkarterrietako Museoak

- **Orain 13 urte zabaldu zantetik bigarren bisitari-kopururik onena da.**

Bilbon (2008ko urtarrilaren 21ean). Bizkaiko Batzar Nagusien Enkar-terrietako Museoak orain 13 urte, 1994. urtean hain zuzen, zabaldu zantetik bigarren bisitari-kopururik onena izan dau joandako 2007an. Abellanedako Batzarretxean dagoan Museoak 13.270 bisitari izan ditu, horreen arteko 9.852 taldeetan joandakoak eta 3.418 bere kabuz joandakoak.

2007. urtean zehar zenbait aldibaterako erakusketa egon dira, Enkarterriko kulturearen eta historiaren inguruan egindako ikerketa-lan handiaren eskutik; horretara, bada, eskualdeko trikuharriei buruzko erakusketea egin da, edo Enkarterriko merkatariei, merkataritzari eta kaltzadei buruzkoa, edo Esteban de Terreros y Pando jaunari buruzkoa, baita jesusen lagundiko XVIII. mendeko intelektual horren lan garrantzitsuari buruzkoa be, egin-eginean zientzien eta arteen berben inguruko gaztelerazko hiztegiari buruzkoa.

Liburu bi argitaratu ditu Museoak 2007. urtean: “Erakusgaia aztergai: Diccionario castellano con las voces de ciencias y artes, y sus correspondientes en las tres lenguas francesa, latina e italiana Esteban de Terreros y Pando.” Genma Bizcarrondo Ibáñez Deustuko Unibertsitateko irakaslearen lana; eta “Sestaon bizi: industria-kulturaren amaiera”, Iñaki Izquierdo Muxika jaunaren lana.

Era berean, zenbait ondare-pieza be eskuratu dira, eta horreen artean azpimarratzekoak dira Sopuertako Labarrietako Gurutze Santuko horma-irudiak, eleizako hormetatik atara eta bereoneratu egin diranak, betirako galdu ez daitezana.

Bestalde, Museoaren Zabalkunde eta Kultura-Ekintzetarako Zerbitzuak Haur Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zuzenduriko hainbat heziketa-ekintza antolatu ditu. Horretara ba, Enkarterriko Historia eta Kultura, baita bizimodua be, ezagutzeko tailerrak egon dira. Horreen artean, azpimarratzekoak dira Historiaurreko eta Ertaroko tailerrak, edo “Bizi zure kontua” eta “Zifrak eta letrak jostailu” izenekoak, edo “El Pobaleko olarekin batera egindako ekintza” edo Gordexolako Carnestolendas izeneko ohiturea berreskuratzeko ahalegina.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Balance 2007

El Museo de las Encartaciones recibe 13.270 visitas

- **Representa el segundo mejor dato de visitantes en sus 13 años de andadura**

Bilbao (21 de enero de 2008). El Museo de Las Encartaciones, perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia, obtuvo el año pasado los segundos mejores resultados de público de su historia desde que abriera sus puertas en el año 1994. Las instalaciones situadas en la Casa de Juntas de Abellaneda recibieron la visita de 13.270 personas, de las cuales 9.852 llegaron en grupo y 3.418 a título individual.

Durante el año 2007 se han llevado a cabo diferentes exposiciones temporales fruto de una intensa labor de investigación sobre la cultura y la historia en Las Encartaciones que trataron sobre los dólmenes de la comarca; sobre la historia de mercaderes, comercio y calzadas de Encartaciones; sobre la figura de Esteban de Terreros y Pando; y una última sobre la prestigiosa obra de este jesuita intelectual del siglo XVIII, el primer diccionario castellano con las voces de las ciencias y las artes.

Durante el pasado año, el Museo ha editado dos obras: “La Pieza: Diccionario castellano con las voces de ciencias y artes y sus correspondientes en las tres lenguas francesa, latina e italiana. Esteban de Terreros y Pando” obra de Genma Bizcarrondo Ibáñez, profesora de la Universidad de Deusto; y “Viviendo en Sestao: fin de una cultura industrial”, de Iñaki Izquierdo Muxika.

Igualmente se han adquirido diversas piezas patrimoniales, destacando las pinturas murales de la iglesia de Santa Cruz de Labarrieta (Sopuerta), extraídas de los muros de la iglesia y restauradas para evitar su desaparición.

Asimismo, el Servicio de Difusión y Acción Cultural del Museo ha organizado diferentes actividades pedagógicas dirigidas al alumnado de Educación Primaria y de la E.S.O. Estos talleres sirven para acercar al alumnado al conocimiento de la Historia y la Cultura en general y a la vida en Las Encartaciones en particular. En este sentido, destacaron los talleres de Prehistoria y de la Edad Media, el “Vive tu cuento”, “Juguemos con las cifras y las letras”, “Actividad conjunta con la ferrería de El Pobal” o la recuperación de la tradición de las Carnestolendas (Gordexola).